

## **Egia erdiak, erdia ustel**

Orokortze guzti-guztiak, definizioz, okerrak dira. Eta erdizkako egiak interesaturiko gezurrak baino ez dira. Bien pean erortzen da Aitor Bilbao, Kristau Eskolaren izenean, legebiltzarreko egoitzan eskola-plaza berberak itunpeko sarean, publikoan duen kostuaren erdia duela baieztatzen duenean.

Baieztapen argudiatzeko gure erkidegoko aurrekontuetan oinarritzen da. Itunpeko ikastetxe pribatuei eskaintzen zaien aurrekontuetako berariazko partida gauza bat da, eta erabat bestelakoa da benetan esku artean orotara izaten duten dirutza. Gauzak honela, itunpekoena soilik den eta adierazten dituen diru funts horietaz gain, ikastetxe hauek, kontzeptu desberdinen inguruan (uniforme eta hornikuntza, materiala, eskolaz kanpoko jarduerak eta bestelako kuotak, batzuk, gutxienez, legezketasun zalantzarria dutenak) familiek egindako diru-ekarpenez finantzaten dira. Askok eta askok, bestelako diru-laguntza publikoak ere jasotzen dituzte hezkuntza programa eta proiektu zehatzak ezartzeagatik; beste batzuk, fondo pribatuak dituzte (fundazio eta erakundeak) eta batzuk, oraindik ere bestelako diru-sarrerak dituzte eskainitako hainbat zerbitzuren truke (leku eta instalazioen zesia, igerileku eta kiroldegien ustiapena, formakuntza enpresa paraleloak...).

Inolako ikastetxe publikok, aldeztu, ezin du bestelako finantzaketa iturririk erabili, soilik eta baldin soilik Hezkuntza Sailak aurrekontuetan ezarritakoa ez bada. Eta hezkuntza publikoari dagokion diru-atal bakar horretatik finantzaten dira hezkuntza laguntza zerbitzu guztiak ere. Azpimarratu behar da, hezkuntza publikotik hornitzen diren hezkuntza laguntza zerbitzu hauek eskaintzen duten zerbitzu hori, ikastetxe guztientzako zuzentzen den zerbitzua dela, izan itunpeko izan publikoko ikasle zein irakasleengana: 19 Berritzegune, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI edota Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza bakoitzak guztientzako zerbitzua eskaintzen dute. Gauza bera gertatzen da irakasleen etengabeko prestakuntzari dagokionez (IRALE, GARATU, nazioarteko zein nazio-ikastaro edota banakako diru-laguntzak), guztientzako baina (gainera, azken zerbitzu honek, euren urteroko deialdietan ikastaroak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuentzat beste finantzaketa diru-iturri erantsia dakar, bertako irakasleek jasotako prestakuntzagatik ez baitute ordaintzen eta aldeztu, bertakoak ez direnengandik dirua jasotzen baitute).

Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasle/ikasgela ratio orokorra publikoetakoa baino txikiagoa da, hots, ikasgela bakoitzeko ikasle gehiago dituzte, beraz haien errentagarritasuna handiagoa da (behar bada, ikasleriaren banakako arretaren galeran bada ere, eta azken finean, irakaskuntzaren kalitatearen kalterako). Ikastetxe hauek, gainera, hirigune eta leku jendetsuenetan kokatuta daude, non merkatu kuota ona duten. Landa inguruneetako herri txikietan, bestetik, bertako biztanleria eskasaren (eta beraz, errentagarritasun txikikoa) hezkuntza eskubidearen bermea ikastetxe publiko baten eskutik emandakoa izan behar du ezinbestean, zeinek, proportzionalki baliabide gehiago erabili behar dituen nahi eta nahi ez.

Era berean, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasle gehienek trataera sare publikoko ikastetxeei dagokie. Hau da, sare publikoak bere gain hartzen du baliabide gehien behar duten ikasleen eskolatzea (ikastetxe pribatuetatik bideratuak askotan, eta ez beti ere/modu etiko eta solidarioan): ikasle etorkinak, heziketa berezikoak, ijito etnikoak, ikasketa eta portaera eragozpenak dituztenak, eskola atzerapena daramatenak... Sare publikoko irakasleak da, baina ere, gaixotasunen edo bestelako arazoak medio eskolara joan ezin duten ikasleen zein ospitalean daudenen arreta bere gain hartzen duena, izan eskola publikotik zein itunpekotik eratorria.

Eta sare publikoaren barne daude, halaber, helduen etengabeko hezkuntzako ikastetxeak, hizkuntza eskolak, musika kontserbatorioak... Eskola publikoak, gizarteak eskatzen dituen lekuan bertan eskaintzen baititu bere zerbitzu eta baliabideak nahitaez, eskola pribatuak komeni eta interesatzen zaion lekuetan soilik eskaintzen dituen bitartean.

Bukatzeko, aipatu behar da, baita ere, itunpeko sare pribatuko irakasleen soldata diru publikotik ordaintzen dela bete-betean, irakasle-funtzionario publikoen soldatarekin %95ean legez homologatua egonik. Alabaina, itunpeko irakasleen lan baldintza objektiboak nabarmenki okerragoak dira (ideologia-kontrola bezalakoak ez aipatzearren), logikoki, honek ere errentagarritasuna areagotzen du: gutxiago kobratzen dute, lan-ordu gehiago egiten dituzte, askoz ikasle gehiago artatzen dituzte, kontrolatuagoak daude eta ezin dute kexatu/protestatu (garai hauetan, FMI, BCE eta CEOEren gozamena!).